

# 65.

zenbakia

2023ko maiatza

debaldeko alea

www.kotarro.eus

# kotarro

## Garean-Jarduerak

### LIZARRAN KANTUZ

Maiatzak 27

Baxe Nafarroa kaletik

### TXOKOLIPUINAK

Maiatzak 30, Lur Korta

18:15 Alfonso Ugarte aretoa

### IRAKURRI, GOZATU, BERTAN EROSI ETA OPARITU KANPAINA

Martxoaren 15etik maiatzaren 31ra



### AGENDA

Maiatzak 24,

Kulki jolas-parkea 18:00

Hilario Olazaran kontzertua 20:00

Kontzertuak Bota Peñan:

Maiatzak 25, 18:30

Ruper Ordorika

Ekainak 1, 19:30

Bota Peña

Liburu aurkezpena:

«Irulegiko eskua»

Ekainak 2, 22:30

Herdoil eta La Eskolta

Ekainak 9, 20:00

Joseba Irazoki + Piedra



## Gazteriaren jaiak, hauteskundeak eta «zaindu maite duzun hori»



@Arg: Lizarrako Udala

Badira hilabete honetan intereseko hitzorduak. Bata lau urtetik behinekoa, bestea urterokoa eta azkena gutxitan gertatzen den horietakoa. Beste asko ere izango dira, noski, baina hiru hauek ekarri ditugu aldizkarira.

Lizarrako hautagai guztiei luzatu dizkiegu galdera berdinak, udalean egotekotan aurrera eraman asmo dituzten neurriak ezagutzeko asmoz, bereziki euskarari lotuak. Ez hori bakarrik, politikagintzatik kanpo dauden herritarrei ere eman diegu hitza. Baita zuei ere, *kotarro* irakurleei, kontrazalean aurkituko duzue autoinkesta umoretsua, nor

bozkatu hausnartzeko, bozkatzeko asmorik bada.

Gazteriaren jaiak indartsu datoz aurten, gazteria indartsu dagoenaren seinale. Inoiz baino ekimen gehiago antolatuko dira: txosnak, kintoen egitaraua, diskonekt... Egitarau oparo eta anitzean egongo da non aukeratu.

*Inoiz baino ekimen gehiago antolakuko dira...*

Azkenik, bati baino gehiagori luzatuko zaio jaietako bestondo eta nekea aste osoan zehar. Lasai, maiatzaren 25ean Ruper entzuteko aukera izango dugu. Egun astuna arinduko digu bere ahots sendoko poesia musikatuak.

# «Oso polita da Lizarra osorako jarduerak antolatzea eta jendeak horietaz nola gozaten duen ikustea»

*Lizarrako Kintoei katebegi berria gehitu zaie. Gazteriaren jaietan izango dira 94ko kintak antolatuko dituen azkeneko ekintzak. Gauzak horrela, 95ekoari tokatuko zaio lekukoa hartzea. Aipatzekoa da 94ko kintak euskarari dagokionez emandako pausua: antolatutako ekimenetan izan duen garrantzia, kide euskaldunen kopurua, komunikazioa euskaraz... Gauza hauetaz eta gehiagotaz hitz egin dugu 94ko kintarekin.*



## **Zergatik erabaki zenuten Kintan sartzea? Zer esan nahi du zuentzat bertan egoteak?**

Iazko gazteriaren jaietan 93ko kintak erreleboa pasa zigun eta gogoz eta ilusioz hartu genuen. Koordinakuntza taldea, jarduera guztiak antolatzen dituen, zazpi laguneko talde bat da eta, bi lagun izan ezik, gainerakoak koadrila berekoak gara. Talde on bat osatu dugula iruditzen zaigu. Hortaz gain, kintakoak diren beste guztiek noizean behin laguntzen dute. Koordinazioan egoteak lana eta orduak eskatzen ditu, baina, jakina, merezi du, oso polita da Lizarra osorako jarduerak antolatzea eta jendeak horietaz nola gozaten duen ikustea.

## **Zein da orain arte egin duzuen jarduna? Eta zein balorazio egiten duzue?**

Lizarrako jaietan ekin genion gure ibilbideari, musika ekitaldiak eta txosna bat antolatu genituen San Martin plazan jaietako asteburuan. Txosna horren helburua asteburuko gastu guztiak, soinu-ekipoa barne, ordaindu eta jarduerak antolatzen jarraitu ahal izatea izan zen.

Udazkenean, gazte-bazkari tradizionala antolatu genuen, eta urrian, Halloween arratsaldean, txokolatada bat prestatu genuen Gazteriaren Etxeko beldurrezko tunelean parte hartu zutenentzat.

Abenduan San Silvestre lasterketan parte hartu genuen eta Lizarraldeko familia eta elkarteekin (HiruHamabi, La Fuerza de Yeray eta Solidary Wheels) lankidetzan aritzeko elkartasun stand bat jarri genuen.

Otsailean, berriz, hainbat ekitaldi antolatu genituen inauterietan eta, orain, aste batzuen buruan, gazteriarren jaien antolaketarekin amaituko dugu.

### **Lizarrako Gazteriaren jaietara etorrira, ezinezkoa da gazteentzako programazio perfektua lortzea, baina, horra bidean, zein irizpide edo bide-orri jarraitzen duzue ekintzak antolatzeko orduan?**

Lizarrako gazteriaren jaietan parte hartzen duten gainerako kolektiboekin koordinatzea eta komunikatzea oso garrantzitsua da jende guztiarentzako programazio bat osatzeko eta jarduerak gainjarriri ez daitezten. Nahiz eta antolaketa-arazoak direla eta hori zaila den, saiatu gara beste talde batzuekin antolatzen.

Aurten, esaterako, bi orduz FestaGirok eta Kintak lehen aldiz batera antolatu ditugu ekintza batzuk. Honek hunkitu egiten gaitu eta hurrengo urteetan jarraitzea espero dugu. Lizarrako gazte guztiak bi orduz dantzan eta gozaten elkartuta edukitzea oso zirrargarria izango da.

### **Lizarran gazteentzako dagoen aisialdiari dagokionez, nola ikusten duzue egoera? Zein indargune eta hutsune identifikatzen dituzue?**

Hainbat kolektibok urte osoan dihardute gazteei jarduerak eskaintzen, modu desinteresatuan. Oso garrantzitsua da Udalak erraztasunak jartzea ekonomikoki eta, batez ere, laguntza eskaintzen jarduera horietan guztietan.

### **Gazteon artean euskararen erabilera bultzatzeko, zer egino zenukete?**

Gure Kintan hainbat euskaldun gara eta gure komunikazio eta afixa guztiak elebidunak egin ditugu lehen aldiz. Gure partetik egin dezakegun onena euskara publikoki erabiltzea eta zaintzea dela iruditzen zaigu.

### **Hauteskunde garaia da eta, eskatzea debalde denez, zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?**

Beste gauza batzuen artean, udalari eskatuko genioke aurten tramitatu dugun zerbait: Lizarrako Kinta Gazte Elkartearen kontuan hartzea urteko aurrekontuetan, aurten izan ditugun zailtasun guztiak ez izateko. Bestetik, gazteei entzutea eta herriari jarduerak eskaintzen dizkieten kolektiboaren aldeko apustua egiten jarraitzea ere beharrezkoa dela uste dugu.



## **94ko kintaren programazioa:**

### **Larunbata 20**

- 12:00 Gazte festa txupinazoa
- 12:05 Bermuta «Txurrutxiki» txarangarekin
- 14:30 Herri bazkaria Foruen plazan
- 17:00 Gaztelu puzgarriak txikientzat
- 17:45 Kalejira «Ardo Usaie» elektrotxarangarekin
- 20:00 Marabiyak sound
- 23:00 Kontzertuak: *Lérica* eta DJ-ak Foruen plazan

## **Txosnetako programazioa:**

### **Ostirala 19**

- 20:00 Ekitaldia
- 21:00 Kontzertuak: *Eire*, *Lubaki* eta *Apero Punk*

### **Larunbata 20**

- 11:00 Bermuta: Melokoton Gigante
- 14:30 Bazkaria
- 17:30 Kalejira: Ardo Usaye
- 20:00 DJ-ak: *Adrian Busto* eta *Lis J-DJ*
- 23:00 Kontzertuak: *Kristonak*, *Anita Parker* eta *DJ Aizer*




# RUPER ORDORIKA

*bakarka*

**maiatzak 25**

**PEÑA LA BOTA  
LIZARRA**

*Tiketak 10-12€:  
Berri, Katxetas, Ino, Ametsa  
18:30etatx ateak ireki - 19:00etatx hasiera*



**Nola deskribatuko zenuke zure musika estiloa eta nolako bilakaera izan du zure ibilbidean zehar? Zeintzuk dira zure musikak markatu dituen eragin nagusiak? Nazioarteko eragina zenbaterainokoa da, adibidez, azkenaldian Kubakoa?**

Musika zalea naiz eta denetarik entzuten dut nire gustuko gauzen bilaketan...

Bi harik lotzen banaute, hari bat goitik behera dator eta neure sustraiekin lotzen nau, euskara hautatu nuen eta euskaldun bizitzea. Beste haria ezker eskuin doa, neure sasoiarekin lotzen nau, nire belaunaldiko forma berrieekin, herri musikarekin, rockarekin eta bilaketarekin.

Musikan anglofiloa izan naiz beti eta hainbat disko egin ditut Ameriketara eta Ingalaterrako musikarekin. Azken estudio diskoan nire Kubako esperientziak kontatzen sartu nintzen...Hango musika tradizionala maitatzen ikasi dut.

**Zenbait kolaborazio egin izan duzu eta baita taldeetan parte hartu ere. Nolakoa izan da zure esperientzia beste musikari eta artista batzuekin kolaboratzen?**

Ba, ez pentsa, ez naiz kolaborazioetara oso emana. Ez dut nire burua interprete gisa errez ikusten eta horregatik zaila egiten zait besteen egitasmoetan jartzea. Baina, bai, musikari lagunekin aritzea gauza haundia da eta poliki-poliki grabaketa askotant parte hartu dut: Hertzainak, Mikel Laboa, Bide Ertzean, Venizze...

**Nolakoa izan da zure harremana euskal kulturarekin eta nola islatzen da zure musikan? Konpromisoa noraino iristen da?**

Euskaraz ari garenok nahi eta nahi ez euskal kultura deitzen duzun horren partaide gara.

Katebegi bat baizik ez naiz kate oparo batean.

**Nola deskribatuko zenuke gaur egungo musika-eszena Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo? Orain duzun ikuspegitik, 80 hamarkada hasieran Hertzainak taldearekin «inon baino alaiagoa izanen da» abestu zenuen. Iragarpen hura bete al da? Edo batzuetan «ez dela posible, ezin litekeela» pentsatu duzu?**

Aberatsa da gaur egungo musika eszena. Askotan pentsatzen dut eskaintza eskaera baino askoz oparoagoa dela. Hau da, interes eta maila handiko proposamenak sortzen direla askotan radarren azpitik pasatzen badira ere eta jende gutxirengana heldu...

**Zer iritzi duzu Internetek, teknologia berriek eta plataformek musikaren industrian duten eraginari buruz? Zure jardunean zer eragin izan dute?**

Kontsumitzaile bezala izugarritzko garrantzia. Erabat aldatu da dagoeneko musika entzuteko modua eta are gehiago aldatuko da etorkizun hurbilean. Musika egile bezala, grabaketa eta edizio lana asko errazten digu mundu digitalak... sormena berriz, beste kontu bat da. Nik lehen bezala ematen ditut lehen urratsak: bakarka eta gitarrarekin, gero musikari lagunekin... horretan ez da batere aldatu. Baina, orohar, erabateko aldaketa gertatzen ari da musika munduan digitalizazioaren bidetik.

**Etorkizun hurbilerako zer proiektu dituzu aurreikusita, eta nola gustatuko litzaizuke jarraitzea zure ibilbide musikala garatzen?**

Bakarka grabatzen ari naiz orain... bigarren bakar-kako diskoa aterako dut udazken honetan.




LIBRERIA-PAPELERIA

**INO**

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3  
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA



**ASTARRIAGA**  
GRAFICAS

Pl. Zugarraondoa, 6 · ABARZUZA · TEL. 948 520 138



## Udal hauteskundeetarako hautagai agurgarria.

### Galdetegia:

1. Lizarrak dituen arazoak eta beharrak kontuan hartuz, zer egingo zenuke alkatetza eskuratuko bazenute?
2. Zein balorazio egiten duzue orain arte euskararen alorrean Udaletik egin diren politiken inguruan? Eta zer proposamen duzue 2023-2027 legealdirako?
3. Kotarroren irakurleak euskaldunak dira, euskaraz jo nahi badute zuen udal taldearengana, norengana egin dezakete?



### Larraitx Trinkado

*Estella-Lizarrako udalerako Geroa Bai hautagaia*

1. Lizarra bizi, lan egin eta disfrutatzeko hiri bat izatea nahi dugu, eta hiritar guztiontzako nahi dugu, inor kanpoan utzi gabe. Horregatik dagoen lana mantendu eta berria sortzen jarraitu nahi dugu. Eta apustu sendoa egingo dugu Formakuntza

Profesionaleko Campus-aren alde. Merkataritzari ere bultzada eman nahi diogu, hiriarentzako garrantzi handiko agente ekonomikoa baita. Erroka bezala dugu ere Osasun Etxe duina lortzea, eta gure populazioari doituako etxebizitza parkea lortu nahi dugu. Eta disfrutatzeko hiri garbia, lorategi ondo zainduekin, auzo guztiak integratuz handitzen den Lizarra batean. Estella-Lizarra marka turistiko propioa bultzatu, «Cruce de caminos- Bidegurutzeta», Lizarra kulturalki eta ondarearen aldetik oso aberatsa da. Eta guzti horri genero ikuspegi transbertsala emanez.

2. Uste dut euskararen egoera nabarmen hobetu egin dela aurreko gobernuekin alderatuta. Baina aurrerapauso txikiak dira, eta ez daude ziurtatuta, eta hori ikus daiteke behin eta berriro egon diren errekurso judizialekin euskara meritu bezela egon zedin oposizioetan. Anbizioa dugu euskararekin, eta gure esku badago, Euskara Kontseilua peridikoki bilduko da, proposamen partehartzaileak egiteko eta Lizarran euskararen alde lan egiten duten kolektiboek entzuteko.

3. Nire taldean nirekin bertan jar daitezke harremanetan, eta euskaraz erosoago sentituko badira, ni prest egonen naiz beraien kezken berri jakin eta bideratzeko. Esan dugu anbizioa dugula euskararekin, beti egin dugu lan hizkuntza bultzatzeko, eta Udalean ere jarraituko dugu euskararen aldeko lanarekin.

Lizarrak dituen arazoak eta beharrak kontuan hartuz, zer egingo zenuke alkatetza eskuratuko bazenute?



### Fran Moleón Segura

*Estella-Lizarrako alkatetzarako PSN-PSOeko hautagaia*

1. Nafarroako Gobernuarekin elkartzeari behar ditugun funtsezko inbertsioak desblokeatzeko, hala nola Osasun Etxea, Eguneko Zentroa, Iparraldeko Saihesbidea.

2. Lortu behar dugun gauzarik garrantzitsuen euskara eztabaida politikotik ateratzea da. Euskara ezin da udal taldeen artean jaurtitzeko arma izan. Euskara elementu kultural gisa zabaltzen jarraitzea proposatzen dugu, borondatez kotasunetik eta aukera berdintasunetik abiatuta.

3. Ibai Crespo Luna zinegotzia, baita Talde Sozialistako beste kide batzuk ere. Urte hauetan udal taldeak «Ahobizi / Belarriprest» kanpainaren bereizgarria jarri du udaletxeko bulegoaren kanpoaldean.





### **Mikel Kolomo Gurbindo**

*Alkatetzarako EH Bilduko hautagaia*

1. Argi dago urte batzuk atzera begiratuta inork ez zuela pentsatuko orain arte egin dugun bidea egitea posible izango zenik. Zentzu honetan, aurrera begiratzea eta orain arte lan egindako norabidean jarraitzea garrantzitsua da; hori bai anbizioz eta aurrerapauso esanguratsu bat emateko asmotan.


Horrela, hauteskunde hauetarako EH Bilduk aurkezten duen taldea esperientzia duen taldea da baina baita ilusioz beteriko taldea, jende berriarekin eta gauza berriak egiteko grina duen jendearekin.

Alkatetza eskuratuko bagenu, hortaz, orain arte martxan jarritako hamaika proiektuei jarraipena emateko aukera izango genuke, bai zein beste hainbat proiektu aurrera eramateko aukera zabaldu ere; horien artean, Los Llanos parkearen garapen orokorra, alde zaharraren suspertzea, zaintzaren ikuspegi municipalistaren hauspotzea edo parte-hartzea bermatuko duten politiken garapenarekin jarraitzea.

2. EHBilduk bultzatua Udal Euskararen Ordenantza onartu zenetik euskararen erabilpenarekin loturik zein honen normalizazioari begira aurrerapauso bat eman dela ukaezina da. Euskararen ordenantza onartu izanak euskaldunon eskubideak errespetatzeko tresna ekarri zuen, eta zenbait kontutan aldaera nabaria izan da (argitalpen guztiak elebizi egitea, Udalan euskaraz artatzeko aukera, etab.). Baina ezin dugu gure burua engainatu, eta beste zenbait kontutan eman diren pausoak ez dira guk nahiko genukeen bezain azkarrak izan. Beraz, hurrengo legegintzaldiari begira, fokoa hor jarri behar dugula iruditzen zait, Ordenantzaren betetzean, euskaldunon eskubideetan.

Honez gain, euskararen erabilpena sustatzea eta sailen arteko zeharkako lan horretan euskarak izaera integratzailea izatea bermatu behar da. Azken zortzi urteetan, euskaraz egiten diren ekintzek gorakada handia izan dute, eta zentzu berean egin behar dugu lan hemendik aurrera.

3. Zerrendan aurkezten garenon %100ak du euskararen ezagutza eta %85 inguruk du euskararen erabilpen maila osoa. Honez gain, zerrendan lehendabiziko 10 postuetan aurkezten garenon artean denok gara euskal hiztunak. Hots, ez dut uste arazorik izango denik EH Bilduko inorekin euskaraz egin ahal izateko.



### **Mikel Gonzalez-Etxeberri Peñagarikano**

*Estella-Lizarrako udalerako Contigo Estella-Zurekin Lizarra hautagaia*

1. Erronka ugari ikusten ditugu, baina funtsezko proposamenak hauek lirake: Hurrengo legegintzaldian sortzen den udal-lurzoru urbanizagarria, adibidez CANASaren orubea, alokairuko etxebizitza publikoa eraikitzea bideratzea, lehentasunez gazteentzat. Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko giza baliabideak handitzea. Bide-garbitzeta zerbitzuaren kudeaketa publikatu amankomunatu.

Egungo osasun-zentro kolapsatua lehenbailehen handitzea eta eraberritzea, gure ustez epe luzerako den Klaratarren proiektuari ekiten zaion bitartean. Autonomia pertsonala eta zahartze aktiboa sustatzeko udal-programak bultzatzea eta garatzea. Los Llanosen eguneko udal-zentro bat sor dadin sustatzea. Auzoei arreta emateko eta haien hobekuntzaren jarraipena egiteko legegintzaldi-plana. Auzo-asoziacionismoari protagonismoa ematea.

Zeharkakotasuna landuko dugu genero-ikuspegia txertatuz udal-politika guztietan, arlo desberdinen arteko lankidetzeta eta koordinazioa indartuz, aukera-berdintasunaren printzipioari begira. Ura ondasun urria da. Klima aldaketa hor dago. Arazo horri aurre egiteko ekimenak sustatu eta babestuko ditugu. Haur eta gazteentzako udal-aisialdiko programa bat egitea.

2. Egia esan, azken lau urteotan udal-dinamikatik kanpo egoteak zailtasunak dakarzkigu horrelako balorazioak egiteko orduan. Horregatik, nahiago dugu etorkizunean zentratu.

Euskara gure hizkuntzetako bat eta guztion kultura-ondasuna den heinean, euskara indartu eta sustatu egin behar da, elebitasuna helburu duen erabilera normalizatu arte. Horretarako, udal plantillaren euskalduntze prozesuarekin jarraitzea, euskara arloari behar dituen baliabide ekonomikoak ematea, herritarren artean sentsibilizazio kanpainak egin eta hizkuntzaren erabilera eta ikaskuntza dinamizatze.


3. Mikel Gonzalez-Etxeberri Peñagarikanorengana.

## Zinegotzien euskara ezagutza Lizarrako udalean

Lizarrako udalean 17 zinegotzik ordezkatzeko dituzte herritarrak. 1991ko legealditik hona 136 zinegotzi-aldi izan dira eta hamaika egoera. Artikulu honen azpian ikus daitezke azken zortzi legegintzaldietan izan den zinegotzi elebidunen ehunekoak.

Osoz 19,5 zinegotzi-aldi izan dira (kasu batzuetan legegintzaldi erdian ordezkatzeko

zen zinegotzia), hortaz ordezkarien % 14,3 izan da euskalduna. Kontuan hartu behar da estatistika honetan euskaraz ahoz komunikatzeko nahikotasun maila zuten ordezkariak jaso direla, ez, ordea, euskara ezagutza izan arren euskaraz normaltasunez komunikatzeko gai ez zirenak.



## BAZKIDETU

*Garean Euskaldunon Elkartean*

eta lagundu gure proiektuak finantzatzen. Kuota arrunta: 72 euro urtean.



Bazkidetzeko eta informazioa: [kotarro.eus/bazkidetu/](http://kotarro.eus/bazkidetu/)





## 5 hitz

Onintze Arrastia Mauleon (2004, Arellano) idazle gaztearen hitzekin gozatuko dugu *Kotarro* aldizkariko atal honetan, berak idatzitako ipuinen bitartez. Txikitatik datorkio idazteko afizioa, irakurtzeko afizioarekin batera. Azken hori amaren partetik etorri dela esan daiteke, amaren familian oso errotua

egon baita beti zaletasun hori. Ipuinak bere kabuz idatziz hasi zen lehendabizi, lehiaketetan parte hartzea erabaki zuen arte. Ager Vasconum literatur lehiaketan saritua izan da 2018, 2021 eta 2022 urteetan eta Urruzuno literatur lehiaketan 2021. urtean.

## Datorrenaz eta etortzekotan denaz

Telebista pizteak beldurra ematen digu garaiotan. Beldurra ematen digu miseria eta biolentzia ikusteak. Beldurra ematen digu diskurtso hutsalak entzuteak. Esperantza galtzeak ematen digu beldurra.

Gero, errudun sentitzen gara, edo, hobeto erranda, errudun sentiarazten gaituzte. Ez garela ezertaz enteratzen diote batzuek, tontotuta gaudela besteek. Geu gara gure ezjakintasunaren errudun.

Izututa eta ergelduta; ba al dago horrela egotea baino gauza alienagarriagorik?

«Egin kasu nagusiei». Zer nagusiei? Adinez zaharragoak direnak dira nagusi horiek, edo justu telebistan agertzen direnak? Zer erakusten digute nagusiek? Eta zer erakusten digute nagusiak ez direnek? Kezkak ere betetzen du gure bizitza.

Gizartearen baitan dugun betebeharrak kontziente izatea da minimoki eskatzen zaiguna, eta, antza, ez dugu betetzen. Jaiek arduratuegi gaituzte, eta ez dugu erantzukizunik hartu nahi datorren erabaki garrantzitsu horri dagokionez. Nola izango gara ba gu, gazteok, jaia ez den bertze zerbaiten parte hartzaile?

Ba, bagara, bai. Beldurraz, ezjakintasunaz eta kezkaz aparte badagoelako itxaropen puntu bat, galtzeko arriskuan dagoen arren bizirik dirauena. Baina badirudi nagusiek ez dutela hori begitantzen. Erauntsia hasi zenetik haren akabailaren esperoan tinko gaude asko, begirada ortzimugako ostarre horretan finkaturik, eta ez datorren ba-realdian.

—Ei, zertan ari zara hor, hain pentsakor? —Aurpegi irribarretsu bat daukat nire aurrean, esku artean dudana koadernoari beha—. Jaie-tarako txandak prestatzen, ala?

—Horretan nengoen, bai.

—Laguntzarik behar?

Baietz egiten dut buruarekin, pozik. Horrek irekitzen baitu gure itxaropena; konpromezuak eta lankidetzak.

*Onintze Arrastia*



## Foto-inkesta:

Udal hauteskundeak datoz eta, politikarien txanda izanik ere, herritarrei eman nahi diegu hitza Estellerra hobetzeko egin nahi dituzten proposamenak egin ditzaten:

**Alkatea bazina, zer egingo zenuke gai hauetan:**

- 1- Kotxe trafikoa:
- 2- Jaietako su-artifizialak:
- 3- Jaietako kontzertu bereziak:
- 4- Jaietako zezenketak
- 5- Gaztetxea:
- 6- Zergak:



### Iñigo Urrizelki

1. Asko erabiltzen da kotxea Lizarran. Trafiko handia dago, nahiz eta gero eta oinezkoendako leku gehiago egiten ari diren, bide horretan joan beharko ginateke. Ondo ikusten dut zona urdina ez ordaintzearena.
2. Diru asko eta denbora gutxiko ekintza bat da. Gainera, azken urteetan egon diren lehorrekin, arriskua ikusten dut. Gure inguruan dauden animaliak ez ditugu batere laguntzen, ezta pertsona autistei edo bestelako arazoei.
3. Lizarrara kontzertu onak ekartzea polita da, baina oso garrantzitsua ikusten dut aniztasuna egotea: euskara, talde lokalak... Ondo ikusten dut ere kontzertuak deszentralizatzea, Lizarrako beste lekuetara eramatea eta tabernez gain, Lizarrako kolektiboak ere ongi ateratzea kontzertu horiekin.
4. Ez nago batere ados plaza batean gure gozamenerako animalia bat torturatu eta bizitza kentzearekin. Plaza beste gauza batzuetarako erabili dezakegu: kontzertuak, merkatuak, pipican, antzerkiak...
5. Herri batean Gaztetxe bat garrantzitsu eta beharrezkoa ikusten dut. Jende anitzeko eremu ireki bat ikusten dut. Garrantzitsua ikusten dut bizilagunekin errespetua edukitzea eta aldi berean gaztetxeari dagokion errespetua ematea. Herri bat, Gaztetxe bat!
6. Bizitza honetan zergez gainezka gaude. Edozertarako ordaintzen dira. Beharrezkoak dira, baina gehien daukanak gehiago ordain dezala eta zergetatik ateratako dirua, gehien behar duenarentzako. Herriko kolektiboak eta herriarentzat lan egiten duen biztanleari zergak ordainaraztea ez dut ongi ikusten, borondatezko lanarekin, nahikoa egiten dute.



### Ibai Morentin

1. Ibilgailuen trafikoa hobetzeko Zaldutegiaren gasolindegian biragune bat jartzea.
2. Jaietako su-artifizialekin, igandean egun berezi bat egitea.
3. Jaietako kontzertu bereziak iazkoaren moduan egitea.
4. Zezenketak murriztea.
5. Gaztetxean, gazteriak autogestioarekin jarrai dezala.
6. Zergak apur bat jaistea, kar kar kar




EZ, SEI. EZ DA GURE ESKUBIDEEN  
ALDEKO MANIFESTAZIOA!  
FUTBOL PARTIDU ZIZTRINAK ERAGIN  
DUEN GIZARTE-MUGIMENDU  
HUTSALA BESTERIK EZ DA!

PANEM TA CIRCENSES!



## denborapasak

### Gurutzegrama



#### Goitik behera

- 1- Bankuaren sinonimoa.
- 2- Bankuaren itxura bisuala.
- 3- Bankuen ohiko kokalekua.

#### Ezker eskubi

- 4- Bankuei esker, pertsonen arteko harremana.
- 5- Bankuen erosotasuna.
- 6- Zerez egiten dituzte bankuak?
- 7- ..... hartzeko dira.
- 8- Arrain-bankua.

### Euskal glifoa





# Autoinkesta: Alderdien hizkuntza politika interpretatzen

Talde politiko gehienek haien hauteskunde proposamenak posta bidez bidaliko digute edo, gutxienik, gutun bat bidaliko digute. Litekeena da Kotarro hau eskuartean duzunerako gutun gehienak jada zure postontzira iritsi izana. Bada, hona hemen gure proposamena, ondoko galdetegi hau erantzun, puntuak batu (edo kendu), eta alderdiaren euskaltzaletasuna neurtu gure eskalan! ACME-markako eskala...

## Talde politikoen posta-publizitatean edo kartelean:

- Bakarrik «Estella» eta/edo «Navarra» agertzen dira, ez Lizarra edo Nafarroa? - 3
- Euskarazko esaldi bat ere ez da agertzen? - 2
- Gutunazalean/Kartelean ez dago inolako euskararen presentziarik? - 2
- Esaldi bakarra dago euskaraz? - 1
- Testuaren laurdena inguru da euskaraz? + 0
- Alderdiaren izena euskaraz ere badago? + 1
- Testuaren erdia inguru da euskaraz? + 2
- Testuaren erdia gutxienez euskaraz, eta mezua ezberdina da euskaraz/gaztelaniaz? + 3
- Badago programan euskarari buruzko hauteskunde-proposamen positiborik? + 2

## Eskalaren interpretazioa... umoretsua (edo ez):

- 6 / 8 puntu artean: Lizarra «Eremu mistotik» atera eta «Eremu euskaldunera» eramango du. Leloa: Berdintasuna eskubideetan eta ekitatea politiketan.
- 3 / 5 artean: Euskararen diagnostikoa eta Udalaren euskara plana egin, onartu eta baliabidez hornituko ditu. Eta legegintzaldi amaieran betetze-maila aztertuko du.
- 1 / 2: Euskararen alde zaude? Bai, noski! Baina ez eskatu euskara administrazioan lan egiteko.
- 0: Euskara? Ah, bai, abertzaleekin gobernua adosteko negoziatu behar den hori.
- -1 / -2: Espainiera hizkuntza komuna da... eta hitzaldi-agurraren ondoren «gaztelaniaz egingo dut denok uler dezagun»; zinema, antzerkia, ludotekak gaztelaniaz programatuko ditut denontzako izan daitezten.
- -3 / -5 artean: Euskararen kontra zaude? Ez, noski! Baina euskara ez da Lizarrako hizkuntza, kapritxo bat da.
- -6 / -8 artean: Pirritx, Porrotx, Marimotos *pailazo molto non-grato* izendatuko ditu Lizarran.

**kotarro**

65. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.  
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:  
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:  
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua  de Navarra



Kotarro aldiakarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.